

DEFENDATZAILEEK MUGITZEN GAITUZTE

Bira 2025 | Iruñea



**Mugarik Gabe
Nafarroa**
ONG de Cooperación con el Sur

Gure erakundean gaur egungo garapenerako eredia salatzea dugu helburu, desberdintasunen sorburu nagusia baita, eta Hegoalde eta Iparraldeko herrien arteko elkartasuna eta toki-ko sentsibilizazioa lantzen dugu. Giza eskubideen defentsaren aldeko eta bake eta desmilitarizazioaren aldeko kultura baten sorrera bultzatzen dugu.

IZENBURUA

Defendatzaileek
mugitzen gaituzte
2025 bira | Iruñea

EGILEA

Mugarik
Gabe Nafarroa

ITZULPENA

Karrikiri

**AZALAREN
DISEINUA ETA
MAKETAZIOA**
aidoua



Creative Commons lizentziapean argitaratutako lana. Erreprodukzio osoa eta partziala baimentzen da, honako baldintza hauek betez gero:

Aitorpena: Materiala hirugarren pertsonen banatu, kopia eta erakutsi dezakete, kredituetan aipatzen bada.

Ez komertziala: Jatorrizko materiala eta lan eratorriak banatu, kopia eta erakutsi egin daitezke, erabilera komertziala ez duen bitartean.

Berdin partekatu: Jatorrizko materialetik sortutako, eraldatutako edo nahastutako materiala jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu behar da.

www.mugarikgabenafarroa.org

info@mugarikgabenafarroa.org

948 10 73 37 / 633 50 60 55

C/Zapateria 31-1º, Pamplona

Argitalpen hau "Sembrando Alternativas: Alianzas por el Buen Vivir y la Justicia Social" proiektuaren barne egin da, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak 2025eko garapenerako sentsibilizazio- eta hezkuntza-deialdian batera finantzatuta. Argitalpen honen edukia Mugarik Gabe Nafarroako taldearen ardura da, eta ez du kofinantzazailerik konprometitzen.



IM-Defensoras-ekin elkarlanean



GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSARAKO EMAKUMEEN EKIMEN MESOAMERIKARRA EZAGUTZEN

Mesoamerikan urtero milaka eraso gertatzen dira emakumeen, erakundeen eta komunitateen aurka. Misoginiaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren erreinuak prekario bihurtzen ditu beren lurraldeetan giza eskubideak defendatzeko batzea erabaki duten emakumeen bizitzak, emakume izateagatik, defendatzaile izateagatik edo hegemonikoetatik desberdinak diren sexu edo genero identitateak izateagatik jasaten duten indarkeriaren aurrean.

Horregatik, 2010ean, **Iniciativa Mesoamericana de Defensoras de Derechos Humanos (IM-Defensoras)** sortu zen, beren borrokak, erakundeak eta gizarte mugimenduak babesteko eta indartzeko. Elkar zaintzeko itunari **Babes Feminista Integrala** izena eman zitzaion.

2025eko azaroan, Mugarik Gabe Nafarroan Elizabeth Mosquedarekin elkartzeko pribilegioa izan genuen. Mosqueda **Consortio para el Diálogo Parlamentario y la Equidad Oaxaca** erakundeko (IM-Defensoras antolakundearen kofundatzaileetako bateko) kidea da. Gainera, Marta González izan genuen gurean, IM-Defensoraseko sistematizazio estrategiako kidea. Haiekin batera publikoarentzat irekitako hainbat jarduera antolatu genituen, baita barne bilerak eta erakundeekin sustapen lanak ere. Ideia formako hazi batzuk utzi zizkiguten, gure kideekin aliantzak osatzen jarrai dezagun, mundu justuago eta indarkeriarik gabeko baten alde. Hemen bildu ditugu utzi dizkiguten hondarrak, eta horiek elikatuko eta ureztatuko ditugula espero dugu, lanean jarraitu ahal izateko.

3

“Misoginiaren, arrazakeriaren eta kapitalismoaren erreinuak prekario bihurtzen ditu beren lurraldeetan giza eskubideak defendatzeko batzea erabaki duten emakumeen bizitzak”.

NOR DIRA?

3.000 emakume eta 240 erakunde mesoamerikar baino gehiago daude, lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzen, desagertutako pertsonak bilatzen, egia eta justizia eskatzen, berdintasunaren alde lan egiten, migratzaileei laguntzen, informatzeko eskubidea eta adierazpen askatasunerako eskubidea erabiltzen, eta osasun publikoa, ura, herri indigenen eskubideak, lan eskubideak, LGBTIQ+ eskubideak eta emakumeen eskubideak defendatzen.

Helburua da giza eskubideen defentsan dauden Mesoamerikako emakumeek borroka hauei eusteko segurtasuna, ongizatea, lidergoa eta autonomia izatea. Aldarrikapen hauek guztiak bat datoz gure lurraldean Hegoalde Globaleko herrien garapenerako antolaketa librea sustatzen duten gizarte eta lankidetzarako erakunde gehienekin, hau da, Hegoalde Globaleko herrien interesetan oinarritutako eta segurtasun baldintzen barruan egindako prozesu baten alde daudenekin.

NOLA EGITEN DUTE LAN?

Emakumeek indarkeria jasaten dutenean, laguntza zehatza ematen zaie: arriskuak eba-

luatzea, babesteko planak sortzea, arreta psikosoziala eskaintzea eta baita etxe seguruak ere sendatu ahal izateko.

Jasaten dituzten eraso guztiak ikuspegi feminista batetik dokumentatzen dituzte. Autozaintza eta zaintza kolektiboa sustatzen dituzte, eta Estatuari erantzunak eskatzeko eta egoera arriskutsuen berri emateko antolatzen dira. Aktibismoa ezin da sakrifizioa izan.

Eremu digitalean, jendeari irakasten diote nola babestu beren burua sarean eta nola eraiki azpiegitura segurua. Baliabideak lortzen dituzte eta babes sareak sortzen dituzte beste herrialde batzuetako emakume aktibisten artean; *babes feminista* sortzea esaten diote prozesuari.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA HAIEN LANA?

Emakumeek indarkeria estruktural gehiago jasaten dute, batez ere Mesoamerikako giza eskubideen defendatzaileek. Emakumeen aurkako indarkeria, indarkeria arrazista eta xenofobia, indarkeria transfobia, besteak beste, gizartea kontrolatzeko, desberdintasunak areagotzeko eta gizarteko harremanak suntsitzeko tresna eraginkorrak dira. Giza eskubideen defentsarako emakumeen aurkako indarkeria soziopolitikoaren beren gorputzetan agertzen da; indarkeria patriarkal, klasista eta arrazistaren jarraipena da.

Beraz, beharrezkoa da ikuspegi feminista intersektional batez hau aitortzea: «Genero diskriminazioak, zapalkuntza egitura ugariaren bidez, arriskua antzematea mugatzen du —gizarteari indarkeria normalizatzen irakasten baitio—, segurtasunari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena mugatzen du eta laguntza sareak izateko aukerak murrizten ditu». ¹ ♦

“Autozaintza eta zaintza kolektiboa sustatzen dituzte, eta Estatuari erantzunak eskatzeko eta egoera arriskutsuen berri emateko antolatzen dira. Aktibismoa ezin da sakrifizioa izan”.



Somos resistencia, somos abrazo: 15 años de Protección Integral Feminista



1. “Datos que nos duelen, redes que nos salvan” IM-Defensoras (apirila, 2024)

BIZITZEI ETA BORROKEI EUSTEN

ZER DA BABES FEMINISTA INTEGRALA?

IM-Defensorasek elkar zaintzeko ituna bereganatzen du, eta itun hori **Babes Feminista Integrala** deritzon praktika politikoan gauzatzen da. Sistema honek gidatzen du IM-Defensoras erakundearen izatea eta lana. **Mesoamerikako giza eskubideen defendatzaileen**, erakundeen eta komunitate ugariaren artean urteetan zehar sortutako konfiantza politikoan oinarritzen da. Bizi izan dituzten errealitateak, istorioak eta beren burua babesteko identifikatu dituzten beharrak ditu oinarri.

Duen ezaugarri garrantzitsuena hau da: zalantzan jartzen du, generoa kontuan hartu gabe, erasotuak izan diren defendatzaileei tradizionalki eman zaien segurtasuna eta babesa, batez ere Estatuen neurriekin alderatuta (bizkartzainak, kamerak, ibilgailu blindatuak...). Babes Feminista Integralak urrunago joatea du helburu: beste modu batzuk bilatu nahi dituzte babesa zabaltzeko zaintza lanetara, sarean lan egitera eta segurtasun digitalera, beste batzuen artean.

“Elkar zaintzea eta elkarri laguntzea, pozean, haserrean eta samurtasunean”.

Lau oinarritzko zutabeak²:

1 ZAINZA ERDIGUNEAN JARTZEA: «Zaintza eskubidea da, premiazkoa, eta eraiki nahi dugun mundurako oinarritzkoa. Badakigu inork ez duela bizirik irauten elikatzen, sehaskatzen eta sendatzen gaituztenen eguneroko aterperik gabe; edo mantentzen gaituen urik, uztarik eta basorik gabe. Zaintza kolektiboak ahalbidetzen du gure borrokek aurrera jarraitzea eta bermatzen du gure bizitzak ez dituela indarkeriak isilaraziko».

2 SUBJEKTUGABEA: Mugimendu sozialetan parte hartzen duten subjektu politikoak dira, eta, beraz, beren beharrak eta babesa ulertzeko moduak erdigunean egon behar dira.

3 IKUSPEGI FEMINISTA INTERSEKZIONALA: «Gure gorputzak eta lurraldeak kaltetzen dituen sistema kapitalista, arrazista eta patriarkala zalantzan jartzen dugu eta, ikuspegi horretatik, arriskua aztertzen dugu». Ikuspegi feminista tresna garrantzitsua da emakume defendatzaileek eta beren erakundeek, mugimenduek eta borrokek jasaten duten diskriminazioa, indarkeria eta errepresioa ikustarazteko.

4 SARETUTA EGOTEA: Esaldi honetan laburbil daiteke: «Sareek bizitzak salbatzen dituzte!». Babesa ez da banakakoa edo pertsonala, baizik eta defendatzaileen artean artikulatzen den prozesu eta gaitasun kolektiboa, komunitatean, lurraldeetan eta norberaren ezagutzatik abiatuta, defendatzaileen esperientziak, analisiak eta proposamenak aitortuta eta baloratuta.

2. “Datos que nos duelen, redes que nos salvan”
IM-Defensoras (apirila, 2024)

Babes sistema hau ezartzeko estrategia nagusietako bat IM-Defensoras erakundearen eraketa bera da, herrialde ugaritako sare nazionaletan eta sorreratik bertatik zeuden kolektibo batzuetan oinarrituta artikulatzen baita: **Red Nacional de Defensoras de Derechos Humanos en México, Red Nacional de Defensoras de Derechos Humanos en Honduras, Red Salvadoreña de Defensoras, Iniciativa Nicaragüense de Defensoras, Consorcio para el Diálogo Parlamentario y la Equidad Oaxaca, Fondo Centroamericano de Mujeres (FCAM), Asociadas por lo Justo (JASS) eta Colectiva Feminista para el Desarrollo Local de El Salvador.**

Arrisku eta indarkeria egoeretan laguntza eskaintzen dute, eta horrekin batera, giza eskubideen defendatzaile izateagatik jasaten duten indarkeria dokumentatzeko eta aztertzeako erregistro sistema bat ezarri dute. Erregistro honek esaten die zein eskubide urratzen diren, zergatik erasotzen dituzten, zer nolako indarkeria jasaten duten, nork erasotzen dituen, erasoek zein eragin duten defendatzaileengan, taldeengan, ingurunean, etab.

Erregistro Sistema erasoak biltzen eta dokumentatzen dituen lehen tresna da, defendatzaileengandik eta defendatzaileentzat. Izan ere, gaur egun hainbat erakunde nazional eta internazionalak erregistratzen eta salatzen dute emakume defendatzaileen aurkako indarkeria, baina duela hamar urte ez zen halakorik egiten, eta erregistroak zalantzan ere jarri egiten ziren emakume defendatzaileen egoeran espezifikoki oinarrituta zeudelako.

Defendatzaileek «ezin dut gehiago» esatea saihestu nahi dute, eguneroko bizitza bizitzen saia daitezen. Artearen bidezko estrategia didaktikoak ere badituzte, herbarioak sortzen dituzte eta ezagutza berreskuratzen dute, Mesoamerikako antzinako ohitura den temazcal bainuak hartzen dituzte, nazioarteko aliantzak bilatzen dituzte eta lurraldea defendatzeko beste modu batzuk ahalbidetzen dituzte (kontsumitzen dugunari erreparatzea, haziak zaintzea...). Zapalkuntza egiturak aldatzeko eta eraldatzeko moduak biltzen dituzte.

Emakumeak modu ezberdinetan kriminalizatzen dira patriarkatu edo arrazakeria bezalako esparru zapaltzaileetan, beraz, IM-Defensoras saiatzen da moduak bilatzen bizitza aske eta duina lortzeko, etsaiek bizitza oztopatzen baitute eta indarra berreskuratu behar baita.

“Nola kudeatu gure inguruko aktibismorako espazio batzuetan sentitzen ditugun nekea eta desartikulatuta egotearen sentsazioa”.

Erakundea beste batzuen artean gailentzen da giza eskubideen defendatzaileak babesteko estrategian: autozaintzaren, zaintza kolektiboaren eta sendatzearen gainean jakintza handia dute eta gogor egiten dute lan.

NOLA ZAITZEN DUT NEURE BURUA?

- ◆ Mugak ezarrita.
- ◆ Ezetz esanda zerbait egiteko prest ez nagoenean.
- ◆ Kirolari edo aisialdiari denbora eskainita.
- ◆ Atsedeneri denbora eskainita.
- ◆ Bakarrik egoteari eta neure burua ezagutzeari denbora eskainita.
- ◆ Laguntza eskatuta behar dudanean.
- ◆ Besteei ni zaintzen utzita.
- ◆ Gelditzen, eta neure buruari galdetzen: «zer ari naiz egiten?». Batzuetan ahaztu egiten zaigu zerk bultzatu gaituen geure burua zaintzera.
- ◆ Besteez arduratuta.
- ◆ Nire bizitza norekin egingo dudan aukeratuta.

NOLA BAZTERTZEN DUT NEURE BURUA?

- ◆ Neure buruarengandik deskonektatzen naizenean, eta besteei baino ez diedanean egiten kasurik.
- ◆ Gauza bakarrean zentratzen ez naizenean eta aldi berean gauza gehiago egiten saiatzen naizenean.
- ◆ Ez naizenean gelditzen egiten ari naizena berrikusteko eta aztertzeako ea hori den egin nahi dudana.
- ◆ Gelditzea ahazten zaidanean.
- ◆ Ahal dudana baino gehiago egin nahi dudanean.
- ◆ Espektatibak altuegiak direnean.

EL HADJI ZENTROAN ZAINTZARI BURUZ LANEAN

IM-Defensorasen Iruñeko egonaldian, tailer bat jasotzeko aukera izan genuen, haien lana ezagutzeko Babes Feminista Integralaren ikuspegi horretatik, eta autozaintzarekin, zaintza kolektiboarekin eta sendatzearekin lotutako tresnak indartu genituen.

Horri esker, jorratu ahal izan genuen nola kudeatu gure inguruko aktibismoarako espazio batzuetan sentitzen ditugun nekea eta desartikulatuta egotearen sentsazioa. Gaur egun aktibismoa nola ulertzen den hausnartu genuen, aktibista izateko eredu sakrifikatua zalantzan jarri, eta, kolektiboki, zaintza ekintza politikoaren erdigunean jartzeko modu zehatzak bilatu genituen; alde batera utzi gabe gizarte kolektibo baten parte hartzeak sortzen dituen inpaktuak eta sentimenduak. Erronka handia da entzutea, emozioak ezagutzea eta norbere burua zaintzea, energia berritzeko eta bizitza eta itxaropena erreskatatzeko.

Espazio hau Arrotxapeako **Elhadji zentro autogestionatuan** sortu genuen **SOS Arrazakeria Nafarroako** kideekin. Lokal hau duela bi urte (2023) ireki zen, eta izena Elhadji Ndiayeren omenez jarri zitzaion, Iruñeko Polizia Nazionalaren komisarian hil baitzen, poliziaren zaintzapean, atxiloteta bortitz baten ondoren. Kasua ez zen argitu, eta memoria kolektiboan eragina du oraindik, prozesuaren isiltasunarengatik eta opakutasunagatik, inolako aitortzarik edo konpentsaziorik izan ez baitu.

Jarduera sinpleak egin genituen, hala nola, aktibismoari eskaini diezazkiokegun ezaugarriak bilatzea, geure burua nola zaintzen dugun edo nola baztertzen dugun pentsatzea. Garai oldarkor hauetan inoiz baino gehiago, poza, ilusioa, adeitasuna eta kritika ia iraultzailetzat hartzen dira, eta beharrezkoak dira dosi handitan edozein aktibismo esparrutan. Geure burua nola zaintzen dugun eta nola baztertzen dugun esplizituki eta zehazki azaleratzea ezinbestekoa da orain, Iparralde Globalean militantzia, boluntarioria eta aktibismoa egoera onenean ez dauden honetan.

Konturatu ginen askotan “badakigula” geure burua zaintzen, eta oso barneratuta dugula, baina ahaztu egiten dugula, ez diogulako merezi duen garrantzia ematen. Hori guztia, pertsonala badirudi ere, aktibismoarekin ere lotuta dago: **«Bizi zaren moduan militatzen**

duzu». Aktibismoa askotan produktibitate nekagarritz, exijentziaz, botere rolez eta autoexijentziaz bete ohi da, eta batzuetan ez dugu izaten tresnarik gatazkak saihesteko. Horrez gain, IM-Defensorasek arbasoen zaintza praktika asko berreskuratu ditu: Guatemalako edo Mexikoko maia herriein lotutako kolektiboek esperientzia eta ezagutza handia dute, eta haiengandik asko ikas dezakegu.

“Garai oldarkor hauetan inoiz baino gehiago, poza, ilusioa, adeitasuna eta kritika ia iraultzailetzat hartzen dira, eta beharrezkoak dira dosi handitan edozein aktibismo esparrutan.”.

Aipatutako gauza asko IM-Defensorasek urteetan zehar kolektiboki hausnartu ditu. Zalantzan jarri dute ea autozaintzak indibidualismoa erreproduzitu dezakeen, baina ondorioztatu dute ez dela berekoa, eta garrantzitsua dela ideia hau: «Nire burua zaintzen dut» eta besteak zaindu ditzaket horrela.

Kolektiboetan militantzia oso zurrunera ohituta gaudela sentitu izan dugu askok, horregatik, IM-Defensorasek ikasgai hau uzten digu: lehentasunezkoa, beharrezkoa eta iraultzailea da barrura begiratzea eta hortik aurrera erabakitzea erakundeetako zaintza planak. Etengabe bilatu behar ditugu aukerak geure tresnak aberasteko, geure buruak birpentsatzeko... etengabeko berrikuspena behar da, eta feedback kolektiboa.

Zaintza bizitza duin baten parte da; eskubideak defendatzera bultzatzen gaituen gozamen politikoaren parte da. ♦

Iruñeko Arrotxapeako Elhadji Zentroan Bizitzei eta Borrokei Eusten tailerreko parte hartzaile batzuekin ►



LURRAREN ETA LURRALDEAREN DEFENTSAN

8

Kideekin izan genuen espazioetako bat **“Lurraren eta lurraldearen defentsan: antolaketak kolektiboak mahai ingurua izan zen”**. Bertan gure inguruko ingurumenaren defentsan lan egiten duten Nafarroako taldeekin partekatatu genuen espazioa, hala nola, **Erdiz Bizirik Plataformarekin** eta **Sustrai Erakuntza Fundazioarekin**.

Horrela, honako hau jarri genuen mahai gainean: eremu geografiko desberdinetan egon arren, borrokak komunak eta beharrezkoak dira, eta antolakuntza kolektiboak funtsezkoak dira, herrien arteko elkartasunaz gain.

LURRAREN, LURRALDEAREN ETA INGURUMENAREN DEFENDATZAILEEN AURKAKO ERASOAK

2023ko Global Witness txostenak adierazten du Mexiko, Honduras, Guatemala eta Nikaragua lurra eta ingurumena defendatzeagatik hilketa gehien dituzten munduko 10 herrialdeen artean daudela. Gatazka horietariko gehienak honelako gaiekin daude lotuta: mineralen eta eraikuntza materialen erauzketa; lurzoruaren erabileraren buruzko gatazka nekazaritza, arrantza, abeltzaintza eta basogintza bezalako jardueretan; uraren ku-

deaketa; erregai fosilen erabilera eta justizia klimatikoa/energetikoa. Mesoamerikako lurraldearen ehuneko handi bat meatzaritzarako kontzesiopean dago: %1,6 Hondurasen, %4,84 Guatemalan, %11 Mexikon eta %23 Nikaraguan.³

Azken 13 urteotan, Mesoamerikan eraso gehien jasan dituen taldeetako bat lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileak izan dira. Inposatzen den kapitalismo estraktibistaren ondorio zuzena da hori. 2012 eta 2024 artean Mesoamerikan dokumentatutako defendatzaileen aurkako 43.186 erasoetatik % 22,3 eskubide hauek defendatzen zituzten kideen aurka egin ziren. Urte horietan, 35 kide erail zituzten.

Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileek beren lurraldeetan geratzeko edo bertara itzultzeko eskubidea defendatzen dute, bizitzaren sarea zaintzen dute, naturaren eskubideak babesten dituzte eta ura, ibaiak, mendiak, basoak eta haziak babesten dituzte, baita animalia espezieen aniztasuna ere. Lurra defendatzeak bizitza

3. **“La tierra, para quienes la trabajan y la defienden”**, IM-Defensoras (apirila 2025)

“2023ko Global Witness txostenak adierazten du Mexiko, Honduras, Guatemala eta Nikaragua lurra eta ingurumena defendatzeagatik hilketa gehien dituzten munduko 10 herrialdeen artean daudela”.

erreproduzitzeko bideak eta mundu ikuskerak defendatzea ere esan nahi du, eta horiek, kapitalismoaren metaketa eta esplotaziotik aldenduta, lurraldearekin eta naturarekin beste lotura eta harremantzeko modu batzuk ezartzen dituzte.

Lurraldea ulertzeko beste modu bat indartu nahi dute: ez soilik leku geografiko bat, edo ustiatzeko leku bat, baizik eta haien arbasoek atsedean hartzen duten lekua, haien identitatea eta sustraiak gordetzen dituen lekua. Lurraldea eta ingurumena defendatzeagatik erasotutako gehienak emakume indigenak, garifunak edo afrikarren ondorengoak dira; landa eremuetan bizi dira, lurra lantzen dute, oinarritzeko lana egiten dute eta lurraldeen jabetzatik eta etorkizunari buruzko erabakietatik kanpo utzi dituzte.

Hondurasko kasua deigarria da: aipatutako urteetan erregistratutako eraso guztien % 62 lurraldearen, lurraldearen eta baliabide naturalen defendatzaileen aurka izan ziren. Ondorioz, dokumentatutako datuen arabera, eskubide hauen defendatzaileek beste edozein defendatzaile baino eraso gehiago jasan dituzte (6.764). Bestalde, Mexikon, El Salvadorren eta Guatemalan, urte horietan erregistratutako lurraldearen eta lurraldearen defendatzaileen aurkako erasoak % 13,4, % 12,7 eta % 12,3 izan ziren, hurrenez hurren.

Gaur egun, eskualdeak hiru erronka nagusi ditu. Lehenik, meatzaritza proiektuak, hala nola, **Santa Marta komunitateko** (El Salvador dorko Cabañas departamenduan) **Asociación para el Desarrollo Económico Social** antolaketaren kasua; bertan ingurumenaren defendatzaileak eta komunitateko liderrak kriminalizatu dituzte haien aktibismoagatik. Bigarrenik, proiektu hidroelektrikoak: kasu ezaguna da DESAren Agua Zarca proiektu hidroelektrikoaren aurka egindako protestak. Proiektuak arriskuan jarri zuen Gualcarque ibaia, Lenca komunitateentzako ibai sakratu eta haien biziraupenerako ezinbestekoa. Kasu honen barruan, 2016an Berta Cáceres

hil zuten, gaur egun oraindik zigorrik gabe. Hirugarrenik, Mexikoko turismorako eta elikagaien nekazaritzarako proiektuak, hala nola Tren Maya megaproiektua, zeinak militarizazioan eta elikadura sistema industriala hedatzen lagundu duen (megabaserriak, monolaborantza, hazien pribatizazioa, etab.). Turismo proiektuen adibidea da ozeano arteko ubidea: atzerriko kapitalarekin finantzaturako megaproiektu honek Nikaragua Atlantikoko kostaldetik Pazifikoko kostaldera zeharkatzen zuen, eta arriskuan jarri zuen Cocibolca aintzira, Ertamerikako edateko ur erreserba nagusietako bat. Gainera, kaltetutako lurraldeetako nekazariak kanporatzea eta lurrak kentzea eragin zuen, eta miseria ekarri.

Hala ere, uste dugu ezinbestekoa dela mobilizazio kolektiboaren emaitza diren lorpen zehatz batzuk azpimarratzea: 2017an meatzaritza metalikoaren kontrako munduko lehen legea onartu zen El Salvadorren, nahiz

“Lurra defendatzeak bizitza erreproduzitzeko bideak eta mundu ikuskerak defendatzea ere esan nahi du, eta horiek, kapitalismoaren metaketa eta esplotaziotik aldenduta, lurraldearekin eta naturarekin beste lotura eta harremantzeko modu batzuk ezartzen dituzte”.

9

Mobilizazio kolektiboaren emaitza diren lorpen zehatz batzuk azpimarratzea:

HONDURAS · 2022

- ◆ 2022an Hondurasetan *Enplegu eta Garapen Ekonomikorako Eremuen (gaztelaniaz ZEDE)* proiektua indargabetu zen.

NICARAGUA

- ◆ *Nikaraguan Ozeano Bareko Kanala* eraikitze proiektua bertan behera uztea.

MÉXICO

- ◆ *Gunaa Sicarú* parke eolikoa egiteko megaproiektua bertan behera uztea. Parisko (Frantzia) auzitegi zibiletan *Electricité de France* (EDF) enpresaren aurkako nazioarteko auzia.

eta, zoritxarrez, 2024ko abenduan bertan behera utzi zen; 2022an Hondurasen Enplegu eta Garapen Ekonomikorako Eremuen (gaztelaniaz ZEDE) proiektua indargabetu zen, indar herrikoi eta feminista handia duen gizarte mugimendu baten eskaerei erantzunez, proiektuak heriotza eta jabetza kentzea baitzekarren; Nikaraguan Ozeano Bareko Kanala eraikitzeko proiektua bertan behera uztea, herrialdeko nekazarien mugimenduaren eta ingurumen aldeko erakundearen borroka-aren emaitza; 2022an Mexikon Gunaa Sicarú parke eolikoa egiteko megaproiektua bertan behera uztea, Union Hidualgoko komunitate zapotekaren borroka kolektiboari esker, eta horrek Parisko (Frantzia) auzitegi zibiletan Electricité de France (EDF) enpresaren aurkako nazioarteko auzi bat barne hartu zuen. Aldi berean, gogoratzen dugu lurrak eta lurraldeak suntsitzearen eta hartzearen atzean dauden interes ekonomikoei aurre egiteak indarkeria mingarri handia ekarri duela, horregatik azpimarratu nahi dugu IM-Defensoras bezalako elkarguneen beharra.⁴

ERDIZ BIZIRIK PLATAFORMA NAFARROAKO MEATZE PROIEKTU BATEN AURREAN

IM-Defensorasekin batera mahai inguruan parte hartu zuen **Erdiz Bizirik Plataformak** (landa eremuaren defentsan). 2007an Baztanen (Nafarroako iparraldeko harana) sortu zen plataforma herrikoi, autonomo eta auto-gestionatu hau, meatze proiektu bat zela eta. Eremuko jendea biltzen duen espazio honek oraindik ere jarraitzen du Magnesitas Navarra SA enpresa sustatzaileari aurre egiten, meatze proiektua bazkaleku komunalak hedatzen diren eremuan gauzatu nahi baitu. Plataforma hau sortu zen uste zutelako proiektu honek lurra eta lurraldea ez ezik, bizimodu eta biziraupen modu bat ere mehatxatzen zuela, eta, beraz, borroka ekologistak, feministak eta kulturalak bat egiten zuten.

Urteetan zehar borroka eraldatu egin da gertaeren, pertsonen eta mobilizazioen arabera. Antolakundea feministatzat identifikatzen ez den arren, askok ikuspegi feministatik egiten dute lan, pertsona desberdinak batzeko ideiarekin: nekazariak, landa eremuko emakumeak, baserriak, gazteak zein helduak, auzolanean elkartuta. Tokiko mailan antolatzeaz gain, nazioarteko mailan ere aliantzak sortu dituzte **Emakumeen Mundu Martxarekin**, bizitzak erdigunean jartzeko beharra ardatz hartuta, esanda argi dutela lurra ezinbestekoa dela gure bizitzak mantentzeko. Zentzu honetan, ados daude IM-Defensorasekin esaterakoan emakumeek jasotzen dituzten istorioak misoginoak eta patriarkalak direla, eta mobilizazioetan parte hartzen duten emakumei puta eta sorgin konnotazioak jartzen zaizkiela.

Manifestazioak egin dituzte, baita administrazio prozesuak ezagutzeko formakuntzak ere, informazioa ikusgarri eta eskuragarri egiteko lan egin dute, eragile taldetan eta asanbladatan antolatzen dira, eta intentsitate ezberdineko uneak izan dituzte. Jendearen aurkakotasunaren aurrean, proiektua gelditu egin zen, baina orain enpresak Nafarroako Gobernuari proposatu dio proiektua Udalaz Gaietako Eragina duen Plan Sektorial (UGPS) mailan deklaratzeko, eta horrek proiektua gauzatzea erraztuko luke. Une honetan ingurumen inaktuaren txostenaren zain daude.

Ez da hau inguru horretan dagoen mota honetako proiektu bakarra; Aroztegiaren kasua ere badago: Palacio de Aroztegia SL enpresak 228 etxebizitzako konplexu turistiko bat, golf zelai bat eta luxuzko hotel bat eraiki nahi ditu eskualdean. Eragin handia izango luke ingurumenean eta kulturen, eta herriak ez du babes-ten proiektua. Jendea kriminalizatu da, eta isunak eta mehatxuak jasan dituzte, lurra eta lurraldea defendatzeko duten konpromiso eta gaitasunengatik.

“Tokiko mailan antolatzeaz gain, nazioarteko mailan ere aliantzak sortu dituzte Emakumeen Mundu Martxarekin, bizitzak erdigunean jartzeko beharra ardatz hartuta”.

4. “La tierra, para quienes la trabajan y la defienden” IM-Defensoras (2025eko apirila)

SUSTRAI ERAKUNTZA LURRAREN DEFENTSAKO MUGIMENDUEN ALDE

Nafarroan ingurumenean eragina duten proiektuen irudi bat izateko, **Sustrai Erakuntza Fundazioko** kide bat izan genuen mahai inguruan. Erakunde hau 16 urtez aritu da lan juridiko-teknikoa egiten naturarentzat suntsitzaileak diren proiektuen aurkako mugimendu herrikoa babesteko.

Castejon herriko (Nafarroa hegoaldea) zentral nuklearretan egindako lehen lanetik konturatu dira borrokak urteak iraun ditzakeela. Arazoetako bat da kasu askotan administrazioen aurka borrokatu behar dela (batez ere eskualdekoen aurka). Izan ere, Erdiz Bizirikin gertatu den bezala, duela urte batzuk Plan Sektoriala legeztatu zen, eta horrek udalei eskumenak kentzen dizkie eskualdeko gobernuak esku hartu ahal izan dezan. Sustrairen iritziz, hori «*demokrazia behetik murrizteko eta interes pribatuak sartzeko modua*» da.

Sustrai Erakuntzak laguntza teknikoa eman die Erdiz Bizirik bezalako plataformen inguruko herri mugimenduei, baina baita Nafarroan gauzatzen ari diren beste proiektu batzuei ere. Adibidez, goi tentsioko lineen megaproiektuen, edo energia berriztagarri proiektuen -hala nola fotoboltaikoaren eta eolikoaren- kontrako plataformak babesten dituzte, Urbasa Andia Bizirik, esaterako. Beste adibide batzuk dira Odieta haranekoa bezalako makrobaserri proiektuak edo gaur egun Lizarra inguruan eta Erriberan ikusten ditugun biometanizazio instalazioak.

Fundazioak dio Nafarroan ez dagoela Mesoa-merikako defendatzaileek jasaten duten jazarpen eta kriminalizazio maila, baina aipatzen du aspalditik mugimendu sozialak kriminalizatzen direla talde armatuekin/terroristekin edo ekintza bortitzekin lotuta, hori guztiz faltsua bada ere. Batez ere, isunak, espetxe zigorrak edo inhabilitazioa erabiltzen dituzte zilegitasuna kentzeko edo penalki "hiltzeko", administrazioako langileak barne.

“Sustrai Erakuntza 16 urtez aritu da lan juridiko-teknikoa egiten naturarentzat suntsitzaileak diren proiektuen aurkako mugimendu herrikoa babesteko”.



◀ Lurraren eta lurraldearen defentsari buruzko mahai ingurua, IM-Defensoras, Erdiz Bizirik eta Sustrai Erakuntzarekin

BORROKAK KOMUNAK DIRA

Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defentsa batzen dituzten hiru erakunde hauen kontakizunetan ikusten dugu gauza asko ditugula komunean. Borrokak antolakuntza kolektibo eta lokaletik hasi behar dira, sareak eta nazioarteko laguntza bilatuz, komunean baitute banaka eta kolektiboki gorputza jokoan jarri beharra, eta munduko edozein lekutako injustiziaren aurkako borrokak direla.

Haiek ere uste dute borroka ez dela soilik lurra eskuratzeko, baizik eta baduela zerikusia mundua ikusteko moduarekin eta gure bizitzak nola bizitzeko erabakiarekin ere. Erdiz Bizirikek aipatzen duen bezala: «Ez dago lurra edo lurraldea bakarrik arriskuan, bizimodu bat baizik, biziraupenerako oinarritzko jardueretako bat. Horregatik, ez dugu bereizten alde batetik lurra, bestetik borroka ekologista eta bestetik borroka kulturala; guretzat, dena da bat, azken finean, gure kultura lurrean errotuta dago eta baita gure bizimodua ere».

Era berean, Sustrai Erakuntzak adierazi zuen: «Jendeak behar bezala bizitzeko lurralde erakaturik ez dagoen bitartean, ez da egongo justiziarik gizarteari, ingurumenari edo kulturari dagokionez». Edozein borrokak, edozein lekutan, mugitu egin beharko gintuzke, borroketan ez baitago mugaririk: meatzaritzaren aurkako borroka hemen bezain garrantzitsua da edonon, berdetzat saltzen ditugun energia berriztagarrien plangintza kapitalistaren ereduaren aurka, Hegoalde Globalean eta gure inguruan. Gainera, oso garrantzitsua da borrokatzea, Mendebaldetik egiten diren esportazio desatsegin eta kutsakor gehienak Hegoaldeko herrialdeetan geratzen baitira, mineralak eta energia ahalik eta kosturik merkeenean ateratzen jarraitzeko, prozesuan baliabideak espoliatuta eta herri osoak esploitatuta.

IM-Defensoras eta Sustrai erakuntzako arduraduna
"Libertad para Kenia ya" kanpainaren alde! ▶

IM-Defensorasek honako hau gaineratuta amaitu zuen: «Borrokak maila guztietako batasuna izan behar du, eta komunikazio eta elkartasun sare iraunkorrak izan behar ditu. Uste dut garai hauetan ingurumenaren eta klimaren krisiak argi uzten digula lurraldeen arteko lotura modu globalean. Eskuin muturreko fundamentalismoaren hazkundera, kapitalismoa edo patriarkatua sistema zapaltzaileen presentziak, arrazakeriak eta kolonialismoak argi uzten digute Iparralde-Hegoalde globoaren arteko lotura. Eskatuko nizueke, halaber, kontuan har dezagun ekintza txikiak ere politikoak direla, eta maila globalean eraldaketak eragiten ari den lan kolektibo hau indartzen dutela. Tresna asko ditugu antolatzeko eta gure ahotsak elkarrekin altxatzen jarraitzeko, historikoki eutsi diegun eraldaketa horiekin jarraitzeko, askatasunez, duintasunez, poztasunez eta gozamenek bizi nahi dugulako. Hori da proposamen politikoa, hori da egiten ari garen borroka, eta horregatik jarraituko dugu itxaropena mantentzeko moduak aurkitzen. Eta hortik uste dut antolatu behar garela. Berrikusi behar dugu gure eguneroko ekintzek beste pertsonetan eta lurraldeetan duten eragina. Eta hor, zorionez, zubi hauek eraikitzen ditugu, elkarriketak plazaratzeko, eta aldatzeko bizi ditugun errealitateak eta borroka koordinatu hauetan indarra emango diguten estrategiak». ♦

“Berrikusi behar dugu gure eguneroko ekintzek beste pertsonetan eta lurraldeetan duten eragina. Eta hor, zorionez, zubi hauek eraikitzen ditugu, elkarriketak plazaratzeko, eta aldatzeko bizi ditugun errealitateak”.



MINA EMATEN DIGUTEN DATUAK, SALBATZEN GAITUZTEN SAREAK

Nafarroako GGKEen Koordinakundeak He-goalde Globaleko erakundeen esperientziak partekatze eskaini zigun espazioan, hainbat GKEk bilera bat egin genuen, eta bertan IM-Defensoraseko kideek hurrengo txosten hau aurkeztu ziguten: **«DATOS QUE NOS DUELEN, REDES QUE NOS SALVAN - 10+ Años de agresiones contra defensoras de derechos humanos en Mesoamérica (2012-2023)»**.⁵

Datuak aurkeztu zizkiguten, eta harrigarriak dira: 11 urteko epe horretan, Mesoamerikako eskualdean, giza eskubideen defentsan aritutako emakumeen aurkako 35.077 eraso izan ziren, 200 erail zituzten eta 228 bizirik atera ziren hilketa saiakeretatik. Horri lotuta, IM-Defensorasek gertakariak salatzearen garrantzia azpimarratu zuen heriotza gehiago saihesteko. Horrez gain, nabarmendu zuen erakundeak sistematikoki jazartzen direla eta azaldu zigun zer nolako politika errepresiboak dauden, bai Nikaraguen partetik bai Estatu Batuen partetik, bai lurraldea kontrolatzeko krimen antolatuen partetik.

Erregistro hau aitzindaria da, ordura arte ez baitzegoen giza eskubideen defentsan aritutako emakumeei buruzko datu espezifikorik bilduta, generoaren eta interseksionalitatearen ikuspegitik. Bestalde, nabarmentzekoa da nola defendatzen eta babesten duen defendatzaileen lana. Izan ere, erasoak nolakoak diren adierazteak egoera bakoitzerako neurri eta mekanismo espezifiko eta egokiak

hartzeko aukera ematen digu. Erregistro sistema honen beste elementu aipagarri bat da autodefentsako elementuak lantzen dituela, eta ez defentsa zerbitzua eskaintzen duten kanpoko erakundeenak.

Beren esperientzian oinarrituta, ohartarazi ziguten eskualdeko gobernu gehienetan ez dagoela emakumeen aurkako indarkeria kasuak babesteko interesik, eta erregistroko datuen arabera, erasotzaileen % 45 estatuko ordezkariak ziren: polizia, militarrek eta agintariak. Erasotzaileen % 20,4 ezezagunak ziren, eta zenbaki horrek barne hartzen ditu sarean gertatzen diren eraso birtual guztiak. Halako eraso birtualak gero eta maizago gertatzen dira eta anonimotasun maila handia dute; haien jatorria identifikatzea zaila da, giza eskubideen defendatzaileak beldurtu eta paralizatu egiten dituzte, eta, horrela, haien osasun mentalean eragiten dute.

Erasotutako emakumeek defendatutako giza eskubide motak aztertzerakoan, lehen postuan, hau da, erasoak % 23, egia, justizia eta erreparazioa eskatzen zuten defendatzaileak daude; bigarren postuan, erasoak %15,6, lurrraren eta lurraldearen defentsa dago: hemen defendatzen dena da lurralderik gabe ez dagoela bizitzarik, horregatik oinarritzko eta funtsezko eskubidea dela, eta, gainera, emakumeek rol garrantzitsua dutela horretan oro har Abya Yalan.

IM-Defensorasek egindako ekintzen artean badaude laguntza fisikoa eskaintzea, babesa, giza eskubideen behaketa, sendatze eta autozaintza tresnak eta finantzaketa seguruak

35.077
Defendatzaileen
aurkako erasoak

200
Eraildako
pertsonek

13

228
Hilketa
saiakerak

%45
Estatuko
ordezkarien
erasoak

%20
Egile
ezezagunak

5. <https://im-defensoras.org/2024/04/resumen-ejecutivo/#los-derechos-que-defendemos>

ri buruzko aholkularitza. Horri gehitu behar zaizkio sendatzeko etxeak eta espazioak; defentsarako mugimenduak indartzeko estrategiaren barruan daude, defendatzaileek atsedean har dezaten, haien inguruneetatik urrundu daitezen denbora baterako eta indarberritu daitezen, tresna sendoeekin itzuli ahal izateko, jarraitzeko mundu hobea eraikitzen, non zaintza ohikoa izango den. Gaur egun honako hauek daude: **Oaxacako (Mexiko) Casa La Serena eta Hondurasko Casa La Sigua-ta. Gainera, IM-Defensoras Brasilgo Casa de Respiro, Kolonbiako Refugio Campestre Planetaria Colibrí, Defenred-en Madrilgo Casa de Respiro eta Bizkaiako (Euskal Herria) Basoa Etxea-rekin aritzen da elkarlanean.**

IM-Defensorasen jarduera batzuk aipatu zizkiguten, zeinak eragina izaten ari diren eta kasu batzuetan pozgarriak diren, hala nola Hondurasen atxiloketa arbitrarioen kasuetan egindako presioa. Argi utzi zuten kasu horietan nazioarteko presioa oso garrantzitsua dela. El Salvadorko adibide batzuk ere badaude, hala nola Ruth Lopezen kasuan, atxiloketa arbitrario larria izan baitzen.

IM-Defensoraseko kideek nazioarteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu zuten kasuak ikusgarri egiteko, erakundeetan eta plataforma digitaletan eragiteko eta presioa sortzeko. Adibide batzuk aurkeztu zituzten azaltzeko nola balio izan duen ikusgarritasun horrek sare sozialetan zenbait herrialde presionatzeko eta, horrela, defendatzaileen aurkako erasoak mugatzeko. Garrantzitsua da beti atxiloketak saihestea, puntu horretara iritsita oso zaila baita egoera konpontzea eta prozesu konplexuago batera eramango luke-elako kasua: etengabeko laguntza juridikoa beharko genuke eta asko luzatuko litzateke.

Herrialdeen testuinguru politikoari dagokionez, eskualdeko aldaketak ikusten dituzte, adibidez Mexikon prozesu demokratikoen irekitasun handiagoa dutela, baina aurre-

rapenak astiro datoz, eta erakundeen presioaren garrantzia azpimarratu zuten egoera horietarako. Eremu batzuetan aurrerapen gutxiago dago, hala nola erauzketa eta energia proiektu handietan.

Guatemalan, ordea, aurrerapenak desilusio zantzuak eragin dituzte, kontziente baitira botere erreakzionarioek (fiskaltzak, batez ere) zailtasunak jartzen dituela. Are gehiago, erakundeetako kide batzuk mehatxatuta daude, eta fiskaltzako pertsona batzuek erbestera alde egin behar izan dute. Hala ere, azpimarratu zuten zuhur ibili behar dela kritikak non adierazi aukeratzekoan, proposatzen diren alternatibak askoz okerragoak baitira.

Iparraldeko GKEak lantzeari buruz, IM-Defensorasek iradoki zuen finantzaketa mekanismo seguru eta malguak sor daitezkeela, aliantzak eratu ditzatekeela emailleekin eta finantzaketa dibertsifikatu daitezkeela. Oroitu behar dugu une honetan Europako gobernuen eskuinerako joera mehatxu handia dela, eta horregatik Europatik baliabideak lortzeko aukera gutxiago dagoela. ♦

“Nazioarteko lankidetzaren garrantzia azpimarratu zuten kasuak ikusgarri egiteko, erakundeetan eta plataforma digitaletan eragiteko eta presioa sortzeko”.

Bilera GKEekin,
Nafarroako GGKEen
Koordinakundearen
egoitzan ▼





DEFENTSARAKO ALERTAK



Sare sozialetan partekatzen dituzten **Defentsarako Alerten** bidez, astero eraso asko jasotzen ditugu. Baina badaude bi kasu, kanpaina berezi bat dutenak, eta **Mugarik Gabe Nafarroa** bere ekarpena egiten saiatu da.

Lehena Kenia Hernandez Montalvan defendatzailearen kasua da. Mexikon bidegabeki espetxeratu zuten orain dela 5 urte, protestatzeko eta giza eskubideak defendatzeko zuen eskubide zilegia erabiltzeagatik. Kenia abokatua eta Amuzga herriko feminista da (Guerrero eta Oaxaca estatuetan bizi den herri indigena). Colectivo Libertario **Zapata Vive** elkarteko koordinatzailea eta **Movimiento por la Libertad de los Presos Políticos del Estado de Guerrero (MOLPEG)** mugimenduko fundatzaileetako bat eta bertako kidea den heinean, laguntza eskaintzen zien genero indarkeriaren biktimei, femizidioaren biktimen senideei, askatasuna bidegabeki kendutako pertsonen eta enpresa estraktibisten jarduerak kaltetutako pertsonen.

Hainbat alditan atxilotu zuten arbitrarioki, eta azken aldiaren ostean ez zuten askatu, «indarkeria armatuarekin egindako lapurretak» eta «komunikazio bideen aurkako erasoak» leporatuta. Delitu horiek guztiak herrialdeko errepideetan garraio libre eskatzeko protesta ekintzeekin lotuta daude.

Kenien kasua adibide ona da erakusteko sistema kapitalistak, arrazistak eta patriarkalak krudelki jazartzen dituztela lurraldea eta ondasun komunak defendatzeko aurrerapauso bat ematera eta antolatzaera ausartzen diren emakume indigenak, haiek menperatzeko nahietan.

Beste kanpaina baten helburua da Hondurasko Garifuna lurraldean Supervivientes reality showaren filmaketaren ondorioz giza eta ingurumen eskubideen urraketak gaitzestea, erasoek **Organización Fraternal Negra Hondureña (OFRANEH)** elkartea eta haien komunitatea kaltetzen baitute. Horretarako, Espainiako Estatuko eta munduko beste leku batzuetako 90 nazioarteko erakundek baino gehiagok giza eskubideen urraketa horien amaiera eskatu dute.

OFRANEH 1978an sortu zen Garifuna herriaren kultura eta lurralde eskubideak defendatzeko. Bere lanak erreferente nazional eta nazioarteko bihurtu du, bai ingurumena babestean, bai Garifuna komunitateentzako bizitza duinaren aldeko borrokan. Lan horregatik, jazarpena, mehatxuak, desagertze behartuak eta Garifuna herriaren defendatzaileen hilketak jasan dituzte.

Urteetan zehar, OFRANEHk, Red Nacional de Defensores en Honduras taldeak (IM-Defensoraseko kideak), eta hainbat erakunde nazional eta nazioartekok salatu dituzte Supervivientes reality showaren filmaketak Cayos Cochinos artxipelagoko Garifuna komunitateetan izan dituen eragin larriak: ingurumen kalteak, biztanleei bizi-erapenerako jarduerak egiteko murrizketak, komunitateen arteko gatazkak eta proiektuaren kontra egin duten zuzendutako indarkeria, arrazakeria eta mehatxuak. Esate baterako, zaborra itsasora botatzea edo biztanleriari debekatzea hondartzara sartzea eta arrantza egitea, programa uharte desertu batean gertatzen dela simulatzeko.

15



Informazio gehiago hemen:
Libertad para Kenia ¡YA!
IM-Defensoras



Informazio gehiago hemen:
¡Alto a las violaciones a derechos humanos y ambientales ocurridas en el territorio garifuna a causa de la grabación del reality show "Supervivientes"!
IM-DEFENSORAS



DEFENDATZEN JARRAITU AHAL IZATEKO

Defendatzaileei laguntzea konpromiso etiko eta solidarioa da Iparralde Globaleko erakunde eta GKE guztientzat, eta guretzat ere, Nafarroan, giza eskubideekiko duten konpromisoa defendatzen baitugu. Gizarte justuago baten aldeko borrokan duten garrantziak eguneroko bizitzan dituzten erronken tamainako laguntza eskatzen du.

Defendatzaileak funtsezko eragileak dira, eta, oinarritzko eskubideak aldarrikatzean, gizartea aldatzen ari dira. Uste dugu garrantzitsua eta beharrezkoa dela nazioarteko lankidetzaren oinarria gurekin parteka ditzaketen proposamenak, eskakizunak eta kritikak izatea.

Gizartean aldaketak eragiten ari dira. Izan ere, pertsonalki erasotzeaz gain, kolektiboki eta elkarte mailan ere erasotzen dituzte, eta horrela gizarte justuago baten aldeko edozein aurrerapen ezabatzen saiatzen ari dira.

Ikusi dugun bezala, Mesoamerikan giza eskubideen defendatzaileen egoera bereziki kezkarria da, autoritarismoa berpizten ari baita, eta horrek militarizazioa, jazarpena eta defendatzaileen kriminalizazioa ekarri ohi ditu, baina egoera bera dago Abya Yala osoan eta Hegoalde Globaleko beste herrialde batzuetan.

Horretarako, erronka bat dugu: GKEen artean espazioak sortu behar ditugu Hegoalde Globaleko ahotsak kolektiboki entzun ahal izateko. Horrela, gai izango gara mekanismo kolektiboak martxan jartzeko, eta eragin handiagoa ziurtatuko dugu komunikabideetan edo instantzia publikoetan, defendatzaileen eta haien gizarte mugimenduen aurkako erasoak salatzeke.

Defendatzen jarrai dezaten, GKEen eginkizuna da defendatzaileek osatu dituzten sareen parte izatea, nazioarteko lankideek mahai gainean jar dezaten defendatzaileen borroka, ez dezaten bizitza jokoan jarri behar. ♦